



Bilboko 20 eskola publikotako Guraso Elkarte zein Ikastola gara. Azken hilabete luze eta dramatiko hauetan Palestinan eta, oso bereziki, Gazan gertatzen ari denak hunkituta, hango haurrak eta nerabeak pairatzen ari diren sarraskiak gure barrenak inarrosita eta, oro har, telebisten bidez zuzenean ematen ari diren genozidio honen aurrean suminduta, Bilboko zenbait Guraso Elkartek egindako proposamenari helduz, testu baten inguruan bildu gara.

Palestinan gertatzen ari denak, Israel palestinarren kontra egiten ari den genozidioak, zeharo hunkitzen gaitu. Oso bereziki, umeen aurkako erasoaldi gupidagabeak harritu eta ikaratu egiten gaitu. Egunero ikusten ari gara umeak nola erail, mutilatu eta traumatizatzen dituzten eta, orain, nola hiltzen ari diren gosez.

Gure begiek isurtzen dituzten amorruzko malkoak genozidio hau geldiarazteko indar bilakatzea nahi dugu. Euskal Herriko gurasook ere, oso era berezian, ahal dugun guztia egin behar dugu sarraski hau geldiarazteko. Bide horretan, sortu dugun manifestura atxikitzeko eskatu nahi diegu Euskal Herriko eskola, ikastola eta hezkuntza zentro guztietako komunitateei.

Egunero erailtzen ari diren Gazako haur horiek gure seme-alabak direla aldarrikatu nahi dugu. Eta haien gurasoak gure neba-arrebak direla. Beraien mina gure bihotz barrenetan sentitzen dugula adierazi nahi diegu.

Bihar, gure seme-alabek galdetuko digute zer egin genuen Palestinako herriaren aurkako genozidioa gertatu zenean. Bada, jakin dezatela Palestinako herriaren alboan egon ginela eta sionismoa akabatzen lagundu genuela!

Atxikimendua <https://t.ly/gurehaurrak> linkean eman dezakezue.

Edozein informaziorako edo gurekin kontaktatzeko gurehaurrak@gmail.com e-maillean.